

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Langabeek bigarren seihiakoan emango diren 38 ikastaroetan izena eman dezakete jadanik

650 plaza baino gehiagorekin, 26 ikastaro oinarrizko kompetentziakoak dira eta beste 12 hainbat espezialitate profesionaletakoak

Osteguna, 2016.eko ekainak 9

Nafar Lansareak gaur, osteguna, ekainak 9, 38 ikastarotan izena emateko epea zabaldu du. 650 plaza baino gehiago eskaini dituzte, eta bigarren seihiakoan hasiko dira. Haietatik, 28 oinarrizko kompetentziakoak dira, Helduen Hezkuntza Iraunkorraren bidez emango dituzte, eta beste 12 ak, espezialitate profesionaletako langabeentzat, batez ere.



Prestakuntza ikastaro bat.

Hezkuntza Departamentuak emango ditu ikastaro guztiak, eta izena [www.formaccion.info](http://www.formaccion.info) prestakuntzako plataformaren [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es) atariaren bidez egin daiteke, eta, aurrez aurre Nafar Lansarearen [agentzi](#)etan. Toki horietan kontsulta daiteke ekintza horiei buruzko informazio guztia, eta baita non emango diren ere.

Ikastaro gehienak Iruñean eta Iruñerrian emango dira, nahiz eta Lizarra, Lodosa, Doneztebe, Tafalla eta Tuteran inguruetan ere aurreikusita dauden. Haietako batek ere ez du plazen erreserbarik Gazteen Berme sisteman izena emandako pertsonentzat.

Ikastaro horiekin, Nafar Lansarearen helburua lan-merkatuaren beharrei egokitutako prestakuntza ematea da, bai eta lanbide-jarduerarako eta enplegu bat izateko gaitasuna ematea ere.

### Oinarrizko kompetentzien ikastaroak

Oinarrizko kompetentzien ikastaroak 2. mailako Profesionaltasun Ziurtagirien prestakuntzan sartzeko interesa duten pertsonentzat dira, eta eskatutako titulazio edo akreditaziorik ez dutenak.

Derrigorrezko kompetentziak matematika eta gaztelania dira. Nolanahi ere, gomendagarritzat jotako beste batzuk ere emango dira, gaitasun teknologikoa, zientziakoa eta digitala, adibidez.

Gogora ekarri behar da, profesionaltasun ziurtagiri bat dokumentu bat dela, eta haren bidez, langile bat Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean jasotzen den lanbide-kualifikazio batean akreditatzen dela.

Bestalde, bereziki langabeentzako diren 12 ikastaroetan honako gai

hauek jorratuko dira: administrazioa eta kudeaketa, elektrizitatea eta elektronika, ostalaritza eta turismoa, instalazioa eta mantentze-lanak, eta fabrikazio mekanikoa, besteak beste.